



AURRETIKO INFORMAZIO OHARRA

Aseguru Erakundeen eta Berraseguratzailleen Antolaketa, Ikuskatze eta Kaudimenari buruzko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren (RDOSSEAR) 122. artikuluan jasotzen diren alderdiei buruz informatzeko eginbehar orokorra.

“EUSKALTEL MAPFRE Etxeko Asegurua”

1- ASEGURU ERAKUNDEAREN DATUAK

MAPFRE ESPAÑA, COMPAÑÍA DE SEGUROS Y REASEGUROS SAK Espainian du egoitza soziala, zehazki Ctra. de Pozuelo nº 50, 28222, Majadahonda (Madril) helbidean, eta bere aseguru-jarduera Ekonomia eta Enpresa Ministerioaren ikuskatzen eta kontrolatzen du Aseguru eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez (Erakundearen gakoa: C-0058).

Aseguru Erakundeen eta Berraseguratzailleen Antolaketa, Ikuskatze eta Kaudimenari buruzko Legearen 80. artikulua arautzen duen finantza eta kaudimen egoerari buruzko txostena www.mapfre.com/corporativo-es/accionistas-inversores/información-financiera/solvencia/ web-orrian dago, eta bertan sartuta eskura dezakezu.

Aseguru-kontratuak zuzenean aseguru-konpainiak banatzen dituzenean, jakinarazten da konpainiaren komertzialek ordainsari aldakor bat jasotzen dutela horregatik, eta jakinean jartzen zaituztegu aseguru banaketaren arloko araudiak ezarritakoa betetze aldera.

2- PRODUKTUAREN IZENA

“EUSKALTEL MAPFRE Etxeko Asegurua” (Baldintza Orokorrak hemen: www.mapfre.es).

3- ASEGURU MOTA

3.1. ASEGURU-MODALITATEA

Hogar Arrisku Anitzekoa.

3.2. ASEGURATUTAKO ONDASUN ETA GALERAK

Hauak aseguratu daitezke: etxebizitza (edo edukitzailea), altzariak (edo edukia), bitxiak, dirua eta kreditu-txartelak.

Aseguru-kontratuaren ondorioetarako, **ETXEBIZITZA** kontzeptuan honako hauek sartuko dira:

- Etxebizitzaren eraikin berean edo hari atxikitakoan dauden trastelekuak eta garajeak. Garajetat hartuko da banaka itxitako eta isolatutako lokala edo barrutia, ibilgailuak aparkatzeko erabiltzen dena. Hala hartuko da, gainera, erkidegoko lokalen barruan dagoen eta mugatua eta Asegurudunari esleituta dagoen aparkatzeko tokiak.
- Aseguratutako familia bakarreko etxebizitzaren leku berean dauden igerilekuak eta kirol edo aisialdirako instalazioak, zuhaitziak, lorategiak, eraikuntza osagarriak, hesiak eta itxidurak.
- Uraren eta gasaren instalazio finkoak, energia elektrikokoak eta eguzkikoak, edo antzerakoak, beroketa eta hozketa edo klimatizaziokoak, irudi edo soinuak, telebista edo irratiko antena finkoak, eta instalazio horiek ibiltzeko behar dituzten bestelako gailuak edo elementu finkoak, galdarak, berogailuak, metagailuak, erradiadoreak eta ezaugarri zein funtzio bereko beste batzuk ere. Halaber, garajeen auto hibrido edo elektrikoetarako dagoen kargatze-puntuak (instalazioa) ere estaldura izango du, lehen atalean deskribatutakoaren arabera.



- Segurtasuneko instalazio, gailu edo elementuak, pertsianak, toldoak, parket eta moketak, baita paramentu finkoetako zurezko edo eraikuntza-materialezko estaldurak ere, baldin eta modu iraunkorrean finkaturik badaude. **Nolanahi ere, kontratu honen ondorioetarako altzaritzat hartuko dira egurrezko liburutegi finkoak, baita eraikuntzakoak ez diren materialez egindako edozein liburutegi finko ere.**

ALTZARIAK: Kontratuaren ondorioetarako, honako hauek biltzen ditu: altzariak, etxebizitzaren hormetan jarritako zurezko edo eraikuntzakoak ez diren materialez egindako liburutegi finkoak, eta aseguruaren Baldintza Partikularretan zehaztutako etxebizitzan dauden tresnak.

BITXIAK izango dira etxebizitzaren barruan dauden erabilera pertsonaleko urrezko, zilarrezko edo platinoko objektu edo apaindurak, jatorri biologiko edo mineraleko perlak edo harri bitxiak, kokatuta egon ala ez, eta aipatu materialekin apaindurarako edo etxean erabiltzeko egindako edozein objektu. Ez dira bitxitzat hartuko hemen zehazten diren bestelako metalekin egindako objektuak, nahiz eta urrez, zilarrez edo platinoz xafatuta, estalita edo gaineztatuta egon.

Baldintza Partikularretan BITXIENTZAKO aseguratutako zenbatekoa kontratatu denean, horren barruan egongo dira DIRUA eta KREDITU-TXARTELAK ere, Baldintza Orokorretan ezarritakoa kontuan hartuta.

BITXIEN, DIRUAREN eta KREDITU-TXARTELEN estalduraren muga zehatzak Baldintza Orokorretan zehatz-mehatz jasota daude.

3.3. ASEGURATUTAKO ZENBATEKOA

Aseguratutako zenbatekoa kontratuan finkatzen den kopurua da, eta aseguratzaileak ezbehar bakoitzean ordaindu beharreko kalte-ordainaren gehieneko muga adierazten du.

Kontratatzeko unean ezarriko da, honako era honetan:

- ✓ **ETXEBIZITZARENZAT:** Etxebizitzarentzat aseguratutako zenbatekoa automatikoki esleituko da berreraikitze-balio gisa, eraikitako metro koadroa, etxebizitza kokatuta dagoen probintzia eta eraikuntzaren kalitatea kontuan hartuta.
- ✓ **ALTZARIENTZAT,** birjartzearen edo beste berri batez ordeztearen kostua izango da. Objektu artistikoak edo historikoak badira, arte espezializatuko merkatuan duen Balioaren arabera.

Oro har, MAPFREk etxebizitzaren eta altzarien balio osoa aseguratuko du, hau da, aseguruak aseguratutako ondasunen balioaren % 100 estaliko du.

Aurrekoaren kalterik gabe, kontuan hartuko da beti etxebizitzan asegurudunak duen izaera, eta, maizterra bada, etxebizitza bere jabetzakoa ez bada, lehenengo arriskuan kontrata daitezke etxebizitzaren edukitzailean gerta daitezken kalteen estaldura (ondasunen guztizko balioarekin aurrez ezarritako proportziorik ez duen oroharreko zenbatekoa, arau proportzionala aplikatu ezin zaiona).

Bestelakorik hitzartu ezean, Bitxiak lehen arriskuan kontratatuko dira, eta ez zaie arau proportzionalik aplikatuko.

Nolanahi ere, ondasunak lehen arriskuan aseguratuta ez daudenean, ezbeharra gertatu den egunean ondasunen birjarpen-balioaren % 75 baino gehiagoko balio-galera gertatu bada, aseguratzaileak jasandako galera erreala baino ez du ordainduko, dagokion portzentajea murriztuta.

Kasu batzuetan, erabateko galeragatiko kalte-ordaina salmenta-baliora mugatuko da.



4- ASEGURUA HARPIDETU AURREKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

4.1. ARRISKUAREN DESKRIPZIOA ETA ASEGURATUTAKO ZENBATEKOA

4.1.1. Informazioaren egiazkotasuna

Aseguruaren primarako arriskua balioesteko eta zehazteko oinarria asegurdunak erakundeari galdesortan, beste edozein dokumentutan edo ahoz ematen dion informazioan oinarrituko da; beraz, informazio hori egiazkoa izan beharko da, eta asegurdunak garbi jaso beharko ditu estali nahi den berme bakoitzera doitutako zenbatekoak, kontuan hartuta aseguratze modua eta aseguruan sartuko diren ondasunen edo galeren balorazioa. Informazio hori ez bada zuzena edo nahikoa, prestaziorako eskubidea galtzea ekarriko du hori engainuagatik edo erru larriagatik izan denean, edo kalte-ordaina era proportzionalan murriztu ahalko da, hitzartutako primaren eta arriskuaren benetako izaera jakin ezagutu izan balitz aplikatuko zen primaren arteko aldeagatik, Ekitate-araua edo Arau Proportzionala aplikatzeagatik (Aseguru Kontratuaren Legearen 10. eta 30. artikulua, hurrenez hurren).

Hona hemen etxebizitzari buruzko oinarrizko araua:

- ✓ Kokapena (helbide osoa).
- ✓ Higiezinaren ezaugarriak (eraikitako edo eraberritutako urtea, eraikuntza mota, eraikitako azalera, etab.).
- ✓ Erregimena eta erabilera.
- ✓ Sutearen eta lapurretaren kontrako neurriak.

4.1.2. Ekitate-arauaren, Azpiaseguruaren eta Arau proportzionalaren definizioak

Ekitate-araua, arriskua gutxiesteagatik: Horren arabera, ezbeharrak gertatzen bada arestian aipatutako (aurreko 1.1 puntua) proportzionaltasuna aplikatuz ordainduko dira kalteak, arriskuaren deklarazioan aseguru-hartzaileari edo asegurdunari egotz daitekeen zehaztasun faltarengatik primaren tasa txikia aplikatu izan delako.

Azpiaseguru: Aseguratutako zenbatekoa txikiagoa denean kuantifikatutako ondasunen balioa baino, aseguru modua eta ezbeharraren unean aseguratutako ondasunek duten balorazioa kontuan hartuta.

Arau proportzionala: Horren arabera, ezbeharrak gertatzen bada kalte-ordaina arestian aipatutako proportzionaltasuna (aurreko 4.1.1 puntua) aplikatuz kalkulatu da, azpiaseguru dagoenean.

4.1.3. Prima

Aseguruaren prezioa. Aseguratzailerak polizan babesturik dauden arriskuei aurre egiteagatik jasotzen duen kontraprestazioa da.

4.2. DIFERENTZIEN ZUZENKETA

Asegurdunak egiaztatu egin behar du estalduren helmena bere aurreikuspenekin bat datorrela, eta baita emandako informazioaren eta polizan arriskuaren deskripzioari buruz eta aseguratutako zenbatekoei buruz jasotzen denaren artean ez dagoela alderik ere. Polizaren edukia ez badator bat aseguruaren proposamenarekin edo adostutako klausulekin, aseguru-hartzaileak aseguru-erakundeari erreklamatu ahalko dio dagoen aldea zuzen dezala hilabeteko epean, poliza ematen denetik kontatzen hasita. Epe horretan erreklamaziorik egiten ez bada, polizak ezartzen duena jarraitu beharko da.

5- EGUNERATZEKO BEHARRA

ALDAKETAK ARRISKUAN ETA ASEGURATUTAKO BALIOETAN

Estalduraren indarraldian erakundeari jakinarazi beharko zaio honako hauetan egiten den edozein aldaketa:

- a) **arriskuaren izaeran eta deskripzioan**, horren balorazioan eragina izan dezakeenean, hau da, Baldintza Partikularretan eta, hala badagokio, Baldintza Berezietan hala nola galdetegian edo aseguruak kontratatu zuen pertsonaren beste edozein dokumentutan jasota denaren gainean egindako edozein aldaketa.

Jakinarazitako aldaketek arriskuaren larriagotzea balekarkete, eta hori aseguratzaileak onartzen badu, aseguratzaileak baldintza berri batzuk proposatuko dizkio aseguru-hartzaileari aseguruan. Bi alderdiek aseguruak deuseztatze eskubidea daukate egoera berriarekin ez badaude ados.

- b) **aseguratu daitezken balioak**; erakundeari unean-unean jakinarazita eguneratu ahalko dira, aseguratutako zenbatekoak eta prima balio horietara egokitu daitezzen.

Aurrekoaren kalterik gabe, aseguratutako zenbatekoak polizaren indarraldi berri bakoitzerako eguneratuko dira, eta aseguratutako zenbatekoen errebalorizazioak kontratuko primen eta aseguratutako zenbatekoen iguera proportzionala ekarriko du. Dena dela, frankiziek eta Baldintza Orokor hauetan berme bakoitzarentzat ezarritako mugek ez dute aldaketarik jasango.

Eguneratze hori hitzartutako indizearekin egingo da, eta aurreko urtekoan aseguratutako zenbatekoei aplikatuko zaie beti, irizpide hauei jarraituta:

- ✓ Portzentaje finkoa.

Errebalorizazioa horretarako adostutako portzentajea gehituta handituko da.

- ✓ Kontsumo Prezioen Indizea.

Aldi berrirako primen jakinarazpen-datan ezagutzen den azken indizea eta aurreko urtean aplikatutakoarekin alderatuko da, eta eguneratzea ateratzen den aldakuntza-portzentajea aplikatuz egingo da, baina ez du murrizketarik eragingo aseguratutako zenbatekoan.

6- BERMEEN DESKRIPZIOA (ESTALDURAK ETA BAZTERKETAK) ETA ESKAINITAKO AUKERAK

6.1. ESTALDUREN, MUGEN ETA FRANKIZIEN LABURPENA

Muga zehatzak (MZ)

ETXEBIZITZA ETA ALTZARIENTZAKO ESTALDUREN LABURPENA

KALTE MATERIALAK

- Sutea eta beste kalte batzuk (**Nahitaezko Bermea**):

- Sutea, leherketa edo inplosioa	Muga Zehatzik Gabe (MZG)
- Istripuzko kea	(MZG)
- Tximista batek jotzea, edo hark eragindako ezohiko korronte elektrikoak	(MZG)
- Aseguratutako higiezinetik kanpo egindako lanengatik lursaila istripuz erortzea	(MZG)
- Lurreko ibilgailuen, aireontzien talka edo inpaktua eta ..horiek sortutako uhin sonikoak eta turbulentsiak, eta kanpotik datozen objektuen talka edo inpaktua	(MZG)

- Ekintza bandalikoak.....	(MZG)
• Fenomeno atmosferikoak:	
- Fenomeno atmosferikoak (euria, haizea, harriabarra edo txingorra eta elurra)	40 l/m ² -tik gorako euria Orduko 80 km-tik gorako haizea Harriabarra eta elurra (MZG)
• Kalte elektrikoak:	
- Kalte elektrikoak	(MZG)
• Urak eragindako kalteak:	
- Aseguratutako ondasunetan eragindako kalteak	(MZG)
- Matxurak lokalizatzea eta hoditeriak konpontzea.....	(MZG)
• Hausturak:	
- Kristalak, beirak, ispiluak eta beirateak.....	} % 100, gehienez pieza bakoitzeko 3.000 Euro
- Harraskak eta aparatu sanitario finkoak	
LAPURRETA	
• Lapurreta eta horrengatiko kalteak	(MZG)
• Ebasketa eta bidegabeko jabetzea	ezbeharreko 1.500 Euro
ARRISKU OROTAKOIA	
• Istripuagatiko Arrisku Orotakoa:	
- Aseguratutako ondasunetan eragindako bestelako edozein kalte	Aseguratutako Zenbatekoa Frankizia 100 Euro
- Etxean gertatutako istripuagatiko larrialdiko osasun-laguntza	Aseguratuko 150 Euro
• Arrisku Orotako Teknologikoa:	
- Beste edozein kalte aseguratutako telefonia-, informatika-, irudi- eta soinu-gailuetan eta wearable gailuetan.....	Altzarien aseguratutako zenbatekoaren % 5 eta 3.000 Euro ezbeharreko eta urteko Frankizia 100 Euro
KALTE ESTETIKOAK	
• Aseguratutako ondasunen berrezarpen estetikoaren gastuak	Aseguratutako Zenbatekoa
PRESTAZIO BEREZIAK	
• Etxebizitzaren habitaezintasuna:	
- Hotelean aldi baterako ostatua	10 egun eta egunean 100 Euro pertsonako 3.000 Euro ezbeharreko

- Etxebizitza bat aldi baterako alokatzea	12 hilabete eta 12.000 Euro ezbeharreko
- Aseguratutako ondasunak altzari-gordelekura edo aldi baterako etxebizitzara garraiatzeko, bertan egoteko eta itzultzeko gastuak	Hilabete bat gehienez
- Ondasunei altzari-gordelekura edo aldi baterako etxebizitzara garraiatzean edo bertan egotean eragindako kalteak	% 100
- Jatetxeko eta ikuztegiko gastuak, aseguratutako etxebizitzako sukaldean jazo diren ezbeharrengatik.....	Gehienez ere 10 egun eta 100 Euro eguneko. 1.000 Euro ezbeharreko
• Dokumentuak berriro lortzea	(MZG)
• Aseguratutako ondasunei eragindako kalteak, ezbeharra deuseztatzeko edo ezbeharra mugatzeko	} Aseguratutakoaren % 5 etxebizitzan eta/edo Higigarria / ezbeharra
• Ezbeharra deuseztatzeko eta geldiarazteko gastuak	
• Salbamendua, eraisketa eta hondakinak eta lokatza ateratzeagatik	
• Lapurreta bateko lesioengatik larrialdiko osasun-laguntza.....	150 Euro Aseguratuko

BERME OSAGARRIAK

• Aseguratutako ondasunen aldi baterako lekualdatzea:	
- Altzariak	Aseguratutakoaren % 10
- Bitxiak	3.000 Euro ezbeharreko
• Uholdeak	(MZG)
• Jatorri elektrikoko kalteak.....	(MZG)
• Hoztutako elikagaiak galtzea.....	300 Euro ezbeharreko
• Buxadurak.....	Esku-hartze bat urteko eta gehienez 300 Euro
• Hauen apurketak:	
- Higigarriak, gainak eta apalak, metakrilatozkoak, marmolezkoak, granitozkoak, harrizkoak edo antzeko mineralezkoak.....	} % 100 eta gehienez ere 3.000 Euro pieza bakoitzeko
- Material zeramiko beiratzatuz egindako sukaldeko plakak.....	
• Etxebizitzara sartzeko sarrailak eta ateetako giltzak aldatzea, lapurtu, ebatsi, bidegabe jabetu edo galdu badira.....	(MZG)
• Ebasketa, bidegabeko jabetzea eta gauzen aurkako indarra etxebizitzaren kanpoaldean	200 Euro ezbeharreko
• Etxebizitzaren kanpoaldean pertsonen aurkako indarkeriaz edo bortxaz lapurtzea:	
- Arropa eta norberaren gauzakiak	600 Euro ezbeharreko
- Dokumentuak berriro lortzea	150 Euro ezbeharreko



- Bitxiak	600 Euro ezbeharreko
- Eskudirua	150 Euro ezbeharreko
- Txekeak (bidegabeko kobrantza)	300 Euro ezbeharreko
• Kreditu-txartelen iruzurrezko erabilpena	600 Euro ezbeharreko

ESTALDURA BEREZIAK

ETXEBIZITZAREN JABEAK ALOKAIRU ERREGIMENEAN

• Errentariak sortutako kalteak	3.000 Euro ezbeharreko eta 6.000 Euro urte bakoitzeko. Frankizia alokairu-errenta hilabete batekoa, gutxienez 600 Euro
• Etxebizitzaren habitaezintasuna:	
- Alokairuak galtzea	12 hilabete 12.000 Euro ezbeharreko
- Aseguratutako ondasunak altzari-gordelekura edo aldi baterako etxebizitzara garraiatzeko, bertan egoteko eta itzultzeko gastuak	6 hilabete gehienez
- Ondasunei altzari-gordelekura edo aldi baterako etxebizitzara garraiatzean edo bertan egotean eragindako kalteak	% 100
• Erantzukizun Zibila (etxebizitzaren jabeari dagokionean):	
- Kalte-ordainak eta fidantzak. Kostu judizialak. Zuzendaritza juridikoa	Aseguratutako Zenbatekoa

ETXEBIZITZAREN ERABILTZAILEAK ALOKAIRU ERREGIMENEAN

• Etxebizitza (Jabekideen Erkidegoko barruan egoteagatik ordaintzen den kuota izan ezik)	Aseguratutako Zenbatekoa
• Errentatzailearen altzariak (Errentariaren altzariak aseguratuta daudenean)	Benetako balorea 3.000 Euro ezbeharreko
• Erantzukizun zibileko estaldura handitzea, hirugarrenei etxebizitzako bertako instalazioetako ur-iheseak eragindako kalteengatik	Aseguratutako Zenbatekoa Etxebizitzako kalteak kanpo

BIGARREN EDO DENBORALDIKO ETXEBIZITZAK

• Lapurreta etxea hutsik zegoenean	3.000 Euro/objektuko, salbu eta muga txikiagoa aplikatzen bada
• Etxebizitza desgaitzea asegurduna oporretan dagoen bitartean:	
- Aldi baterako hotelean egotea (mantenu osoan, ikuztegiko gastuak barne)	100 Euro/aseguruduneko eta eguneko, gehienez 10 egun 3.000 Euro ezbeharreko

- Etxebizitza aldi baterako alokatzea 3 hilabete. 3.000 Euro ezbeharreko
- Jatetxeko eta ikuztegiako gastuak, aseguratutako etxebizitzako sukaldean jazo diren ezbeharrengatik..... } Gehienez ere 100 Euro eguneko, 10 egun. 1.000 Euro ezbeharreko

BESTE ESTALDURA BATZUK

ERANTZUKIZUN ZIBILA

- Kalte-ordainak eta fidantzak Aseguratutako Zenbatekoa
- Kostu judizialak eta zuzendaritza juridikoa

ETXEKO ANIMALIAK

- Kalteak 1.000 Euro animaliak 15 eguneko gabealdia
 - Istripua Aseguratutako Zenbatekoaren % 100
 - Albaitaritza-gastuak Aseguratutako Zenbatekoaren % 100
- Lapurreta edo galera:
 - Animalia galtzea Aseguratutako Zenbatekoaren % 100 15 eguneko gabealdia
 - Bilaketa (prentsan edo irratan) 150 Euro animaliak
- Sakrifizioa eta hilotza desagerraraztea:
 - Zahartzea edo eritasun sendaezina 150 Euro animaliak Urtebeteko gabealdia
- Txakur edo katuen egoitzako egonaldia:
 - Jabearen ospitaleratzeagatik..... 300 Euro urteko

ZERBITZUAREN ESTALDUREN LABURPENA

ETXEKO LAGUNTZA

LARRIALDIKO LAGUNTZA ETA PROFESIONALEKIN KONTAKTUAN JARTZEA (Nahitaezko Bermea)

LARRIALDIKO ZERBITZUAK

- Sute, leherketa, uholde edo lapurretaren ezbehar baten ondorioz:
 - Etxebizitza zaindu eta babestea 3 egun
 - Telebista- edo bideo-gailuak ordezkatzeta 15 egun

KONPONKETAK, BERRITZE-LANAK ETA BESTELAKO ZERBITZUAK

- Sarraila, beira, elektrizitate eta iturgintzako matxuren larrialdiko konponketa (beste estalduretan sartzen ez diren kasuetan) 3 orduko eskulana eta joan-etorriak. Materialak eta eskulanaren gehiegizko denbora asegurdunaren kontura
- Sarraila-matxurengatik etxetik irten ezin duten pertsonen salbamendua..... 600 Euro
- Berritze-lanak eta bestelako konponketak egiteko profesionalak Konexio- eta gainbegiratze-zerbitzua. Aseguratuaren konturako gastuak

KONPONKETA ETA BRIKOLAJERAKO ASISTENTZIA

- ETXETRESNA ELEKTRIKOAK KONPONTZEKO ZERBITZUA 3 orduko eskulana, joan-etorriak eta piezak. 2 esku-hartze urteko
- ETXEKO BRIKOLAJE-ZERBITZUA 3 orduko eskulana eta joan-etorriak. Materialak eta eskulanaren gehiegizko denbora asegurdunaren kontura. 2 esku-hartze urteko

FAMILIA-ASISTENTZIA

FAMILIA-ASISTENTZIA

- Etxebizitzan gertatutako istripuengatik:
 - Osasun-langileak etxean 3 hilabete eta 3.000 Euro ezbeharreko
 - Etxeko langileak hamargarren baja egunetik aurrera 3 hilabete eta 20 Euro eguneko, 1.500 Euro ezbeharreko
 - Irakasleak etxean, bajaren hogeita hamargarren egunetik aurrera 6 hilabete eta 1.200 Euro ezbeharreko

ANIMALIEI BURUZKO INFORMAZIO-ZERBITZUA

- Animaliekin lotutako telefono bidezko kontsultak (legeria, albaitaritzako kontsultak, txakurren eta katuen egoitzak eta kontsulta orokorrak) Erabilera librea

TELEFONO BIDEZKO ORIENTAZIO MEDIKOKO ZERBITZUA

- Pertsonen osasunarekin zerikusia duten zalantza edo arazoak mediku eta espezialistei Erabilera librea

LAGUNTZA INFORMATIKOAREN ZERBITZUA

- Urrutiko Laguntza Informatikoa Gehenez 3 ordenagailu eta 3 gailu eramangarri polizako

• Datuak Berreskuratzeko Zerbitzua	Urtean gehienez 2 zerbitzu
• Urrutiko segurtasun-kopiaren zerbitzua	Gehienez 15 Gbyte ordenagailuko
• Antibirusa eta Gurasoen Kontrola	Gehienez 5 instalazio-polizako
• Etxeko Laguntza Teknikoa	Gehienez 3 ordenagailu polizako/2 zerbitzu ordenagailuko eta urteko
BABES DIGITALA.....	Gehienez 6 nortasun edo gailu polizako
LAGUNTZA ONLINE JARDUERETAN: TELELANA, IKASKETAK, AISIALDIA ETA EROSKETAK	Baldintza Orokorren arabera mugak
DEFENTSA JURIDIKOA	
OINARRIZKO MODALITATEA	
• Kostu judizialak, zuzendaritza juridikoa eta lotutako gastuak:	} Aseguratutako Zenbatekoa
- Kalte eta galeren erreklamazioa (kontratuzko erruaren ondoriozkoak barne) ..	
- Defentsa penala, absentzia eta legezko heriotza	} Erabilera librea
• Profesionalen jarduketak eta ordainsariak	
• Orientazio juridikorako telefono zerbitzua	
MODALITATE ZABALDUA	
• Jabetza eskubidea.....	} Aseguratutako Zenbatekoa
• Alokatzeko eskubidea	
BIDAIAKO ASISTENTZIA	
• Gaixotasuna edo istripua atzerrian:	
- Sendatze-gastuak	12.000 Euro
- Egonaldia luzatzea, medikuak aginduta	150 Euro eguneko eta 1.500 Euro gehienez
- Lekualdatzea edo herriratzea	% 100 Aireko baliabide bereziak mugatuta daude Mediterraneoko eta Europako gainerako herrialdeetara
• Lokalizatzea eta salbamendua	1.500 Euro
• Laguntzailearen gastuak:	
5 egun baino gehiagoko ospitaleratzeeetan:	
- Lekualdatzea eta itzulera	(MZG)

- Egonaldia eta ostatua:	
* Espainian	120 Euro eguneko eta 1.200 Euro gehienez
* Atzerrian	150 Euro eguneko eta 1.500 Euro gehienez
- Aseguratuaren lekualdatzea edo herriratzea, osasun-egoerengatik:	
* Lagun baten bidaia-gastuak, aseguruduna itzultzeko erabilitako garraibide berberetan. Aseguruduna edo laguna hamabost urtetik beherakoa bada eta bakarrik bidaiatzen badu, konpainiak pertsona bat jarriko du laguntza emateko, itzulera bada	% 100
• Segizio-gastuak aseguratuaren heriotzagatik:	
- Joan-etorriko gastuak, onuradunek izendatutako pertsonarentzat, hildako aseguruduna hil den tokiraino joateko eta hura ehorzteko tokiraino itzultzeko, gorpuzkiak eramateko	Barne
- Egonaldia eta ostatua Espainian	120 Euro eguneko Gehienez 1.200 Euro
- Egonaldia eta ostatua atzerrian	150 Euro eguneko Gehienez 1.500 Euro
• Aseguratuaren aurretzako itzulera:	
- Itzultzeko bidaia-gastuak ohiko garraibideren batean	(MZG)
• Bagajearen lapurreta edo galera:	
- Berreskuratzeko aholkularitza eta bidalketa gastuak	(MZG)
- Jantziak eta garbitzeko objektuak erostea	300 Euro pertsonako eta 1.200 Euro ezbeharreko
• Botiken bidalketa	(MZG)
• Atzerrian funtsak aurreratzea	900 Euro
• Premiazko mezuak igortzea	(MZG)
APARTEKO ARRISKUEN ASEGURUA (ezohiko gertaerek eragindako galeren kalte-ordainaren klausula)	Estaldura bakoitzerako aseguratutako zenbatekoak Frankizia

6.2. POLIZAK EZ DU ESTALTZEN

Edozein kasutan:

- ✓ Aseguratuak nahita eragindako ezbeharra.
- ✓ Gatazka armatuak (baita aurrez gerra adierazpen ofizialik egon ez bada ere).
- ✓ Matxinadak eta jendetzaren zalapartak.
- ✓ Erreakzio edo erradiazio nuklearra edo kutsadura erradioaktiboa.



- ✓ **Ezohiko uholdeak, urakanak, ekaitzak, sumendien erupzioak, mugimendu sismikoak eta, oro har, euren neurriaren eta larritasunaren ondorioz Nazioko Gobernuak «hondamendi edo katastrofe nazionaltzat» jotzen dituenak.**
- ✓ **Gaixotasun Kutsakor batek edo Gaixotasun Kutsakorraren beldur edo mehatxuak (benetakoak nahiz atzemandakoak) zuzenean edo zeharka eragindako, lagundutako, haren ondorio izandako, harengandik eratorritako edo harekin erlazionatutako edozein galera, kalte, ardura, erreklamazio, kostu edo gastu, hura suspertzen duen edozein kausa edo gertakaririkiko edo haren bestelako sekuentzia batekiko mendekotasunik gabe.**

Gaixotasun Kutsakortzat hartuko da edozein organismoren edozein substantzia edo agenteren bidez beste organismo bati transmititu ahal zaion edozein gaixotasun, non:

- **Substantzia edo agentea hauetako bat izan daiteke, hauetara mugatu gabe: birus bat, bakterio bat, parasito bat edo haren edozein aldaera, biziduntzat hartu edo ez, eta**
- **Transmisio-metodoa, zuzena nahiz zeharkakoa izanik, hauetako bat izatea, hauetara mugatu gabe: airea, gorputzeko fluidoaren bidezkoa, edozein gainazal edo objektu solido, likido edo gaseosoren bidezkoa edo haietara eta organismoen artekoa, eta**
- **Gaixotasunak, substantziak edo agenteak pertsonen osasun edo ongizateari kalteak eragin edo kalteak eragiteko mehatxua sortzen badu edo ondasunei kalteak, hondatzea, balioa edo salgarritasuna galtzea edo haien erabilera galtzea eragiten badu.**

Hala ere, eskusio hori ez da aplikatuko Bidaiaiko Laguntzaren estaldurak espresuki estaltzen dituen gertaeretan, eta, Erantzukizun Zibileko estaldurari dagokionez, ez da aplikatuko presentzia akutu, bat-bateko edo apartekoa eragiten duten eta prozesu endemiko, epidemiko edo pandemikotzat sailkatzen ez diren agente patogenoek eragindako kasuetan.

Estaldura eta bermeetan:

✓ **Kalte Materialen Estaldura**

- **Berariaz aseguratuta ez dauden zeharkako galerak.**
- **Lapurreta eta ebasketa.**
- **Erabilitako materialetan akatsek eragindako kalteak edo galerak, eta baita haien instalatu edo muntatzean eragindakoak, edo aseguratutako ondasunak gaizki erabiltzeak eragindakoak, sutearen bermeak espresuki estaltzen dituen gertaeren kasuan izan ezik.**
- **Lurraren egonkortzeak edo mugimenduak (hondoratzeak, lerratzeak edo erorketak) edota aseguratutako eraikinak erortzea, erresistentzia mekanikoa edo egonkortasuna galtzeagatik, gertakizun horiek Polizak estalitako arrisku baten ondorioz gertatzen badira salbu.**
- **Fenomeno atmosferikoak, meteorologikoak, sismikoak edo geologikoak, berariaz aseguratuta ez daudenean.**
- **Aseguruen Kontentsazio Partzuergoari dagozkion estalduren ezbeharrak.**
- **Pixkanaka hondatzeagatik, berezko akatsengatik edo mantentze- eta kontserbazio-gabeziagatik aseguratutako ondasunek jasaten dituzten kalteak, sutearen bermeak espresuki estaltzen dituen gertaeren kasuan izan ezik.**

✓ **Sutea eta bestelako kalteak**

- **Lurraren egonkortzearen edo mugimenduen (hondoratzeak, lerratzeak edo erorketak) ondorioz jasandako kalteak, aurretik azaldutako arrazoiengatik ez badira.**



- Poliza hau indarrean sartu baino lehenago egindako lanek eragindako kalteak, kalte horiek haren indarraldian adierazten badira ere.
- Eraikuntzaren egituraren segurtasuna arriskuan jartzen ez duten kalte materialak, eta eraikina hustea ez dakartenak.
- Eraikuntzan edo muntaketan zehar ondasunek jasandako kalteak.

✓ Fenomeno Atmosferikoak

- Aseguratutako ondasunak behar bezala ez mantentzeagatik edo kontserbatzeagatik sortutako kalteak.
- Pixkanaka sortu diren itogin, filtrazio, hezetasun, kondentsazio edo oxidazioek eragindako kalteak.

✓ Kalte Elektrikoak

- Gailuek edo ekipo horiek jasan ditzaketen kalteak behar bezala funtzionatzen ez dutelako.

✓ Urak eragindako Kalteak

- Meteorologia-gertakariak eragindako kalteak, filtrazioak edo isuriak, euri-uretarako zorrotan ezkutuetako isurietatik ez badatoz.
- Inguruko hezetasunak eragindako kalteak, filtrazioak edo itoginak, edo lurzorua edo zimenduek igorritakoak, edo itsaso, ibai, ibaiadar, laku, urtegi, ubide eta izaera publikoko saneamendu- edo estolda-sareetako kanal edo erretenetatik datozen uhaldi edo gutxikako ekintzaren ondorioz eragindakoak.
- Txorrotak, ixteko giltzak, ur berorako elementuak edo gailuak eta bere osagarriak, galdarak, berogailuak, metagailuak, aire girotua eta, oro har, instalazio finkoetara konektatutako gailu oro konpontzea edo doitzea, baita etxetresna elektrikoak ere.
- Komun elektriko eta birrintzailetako buxadurak.
- Jatorria igerilekuetan edo aintzira, putzu, hobi septiko, ureztatze-sare, estolda, arketa edo saneamenduko sare horizontaleko bestelako elementuetan, edo euri-uretarako erreten edo zorrotan duten isuriak edo matxurak aurkitzea eta konpontzea.
- Izozteak kaltetutako hoditeriak, eroateak edo deposituak konpontzea, baita izozteak eragindako ur ihesengatik kalteak ere.

✓ Hausturak

- Marko, moldura, objektu apaingarri, lanpara, beira, ontziteria, etxeko tresneria oro har haustea, baita optika-gailu edo tresnetako pantailak eta osagarriak haustea. Hala eta guztiz ere, salbuespen hori ezingo da aplikatu "Istripuaren Arrisku Orotakoa" bermea kontratatu denean.
- Wearable gailuak eta telefonia-, informatika-, irudi- eta soinu-aparatuak haustea, baita horien pantailak eta osagaiak haustea ere. Halere, bazterte hori ez da aplikatuko "Arrisku Teknologiko Orenen" bermea kontratatzen denean.
- Betaurrekoen eta horien eustoinen haustura.
- Gainazalak eta merkurioz estalitako azalerak urratzea, karrakatzea, zartatzea eta beste moduren batera hondatzea.

✓ Lapurretaren Estaldura

- Galera edo galtze sinpleak.



- Baldintza Partikularretan azaldutako etxebizitzatik kanpo dauden ondasunak, Baldintza Orokor hauetan espresuki adierazi diren kasuetan izan ezik.
- Aseguratuaren, aseguru-hartzailearen edo haien mendeko pertsonen edo haiekin bizi direnen egindako zabarkeria larrien ondoriozko ezbeharrak.

✓ Arrisku Orotako Estaldura

- Aseguratutako etxebizitzatik kanpo jazotako gertaerak.
- Altzariak, apalak edo bestelako objektuak osorik edo zatika erortzea edo askatzea, behar ez bezala jarrita egoteagatik, gehiegi erabiltzeagatik, gehiegizko pisua izateagatik edo heldulekuen narriadurarengatik. Kasu horietan polizak ez ditu erori edo askatzen den ondasunak pairatutako kalteak estaltzen, ezta bertan edo bertatik kanpo jarritako ondasun, objektu edo gauzenak ere, ezbeharraren ondorioz kaltetuz gero.
- Ondasunen erabilerak berak eragindako narriadura edo higadura, edo izaera mekaniko, elektriko edo elektronikoko matxurak.
- Mota guztietako kutsadura.
- Termita, zizare, zerren edo edozein intsektu-plagaren ekintza.
- Aseguratutako ondasunak besterentzea, konfiskatzea edo nazionalizatzea edo horietan edozein gobernu edo agintariren aginduz sortutako kalteak (egitez edo zuzenbidez).
- Edozein mota edo izaerako likidoen isuriak.
- Aseguratutako ondasuna konketa, harraska, komun edo beste edozein osasun-aparatutako hustubidetik erori edo jaustea. Kasuotan, polizak ez ditu estaliko eroritako ondasunarengatik jasandako kalteak, ez galera bera, ezta hura berreskuratu edo salbatzeko gastuak ere.
- Aseguratutako ondasunen galera edo galtze sinpleak.

Estaldura honek ez du barne hartzen harramazka, urradura, zartatu, zipriztin, marradura edo kaltetutako objektuetako bestelako azalerako edozein alterazio, salbu eta bestelako kalte handiagoak ere baldin badaude, ondasun berean, polizak estalita badaude eta ezbehar berebanean gertatu badira.

✓ Kalte Estetikoaren Estaldura

- Ezbeharrean kaltetu ez diren gailu sanitarioak eta bere osagarriak.
- Motordun ibilgailuak eta ontziak.
- Igerilekuak eta jolas- edo kirol-instalazioak, zuhaitzak, landareak, lorategiak eta Aseguratutako etxebizitzaren eremua mugatzen duten hesi edo euste-hormak eta perimetro-hormak.
- Kalte Materialen, Lapurreten eta Arrisku Orotako Estaldurek babestutako ezbehar batetik eratorritako galerak nahiz kalteak.
- Bildumen eta liburutegien desorekatze edo galera eta, oro har, edozein motatako ondasun higigarrien multzo edo sortenak. Hala eta guztiz ere, helburu hauetarako ez dira multzo edo sortatzat joko altzariak berek osatzen dituztenak (hirukoak, sukaldeko altzariak, etab.).
- Konponketa edo birjartze estetikoaren ondoren, Kalte Materialen, Lapurreten eta Arrisku Orotako Estaldurek babestutako ezbeharren eragina zuzenean jasan ez duten gela edo barrutietako galera.
- Narriadurak edo hondamen orokorrak kaltetutako aseguratutako etxebizitzako hoditeriaren edo kondukzioen konponketa edo aldaketako lanen ondorioz beharrezkoa izan daitekeen berrezarpen estetikoa.



✓ Etxeko Asistentzia Estaldura

- Etxetresna Elektrikoak Konpontzeko Zerbitzua.
 - Erosketaren fakturarekin bat fabrikatzailearen bermeak estalitako etxetresna elektrikoaren gaineko esku-hartzeak edo, edozein arrazoiengatik berme epea ezagutzen ez bada, haren iraupena izango da salerosketa egin den uneko indarreko legedi aplikagarriarekin bat fabrikatzaileak eman behar duena.
 - Etxetresna elektrikoaren matxura mekaniko, elektriko edo elektronikoa eta, zehazki, haren osagai ez mekaniko edo elektronikoen urradurak, kolpeak, deformazioak edo hausturak ez diren edozein motatako kalteak.
 - Etxetresna elektrikoetan istripuz (erorketa, kolpe, kanpo inpaktu, tentsio igoera eta likido isuriaren ondorioz) sortutako edozein motatako kalteak.
 - Akats estetikoak, korrosioak, oxidazioak, ingurumen inguruabarren edo erabileraren ondorioz sortuak.
 - 10 urte baino gehiagoko fabrikazio-antzinatasuna duten etxetresna elektrikoak.
- Brikolaje zerbitzua.
 - Zerbitzua osatzen duten lanak egiteko erabilitako materialen kostua; Hartzaileak edota asegurdunak ordaindu beharko du oso-osorik.
 - Hartzaileak edota Aseguratuak bere gain hartu beharko du, halaber, ematen den zerbitzu bakoitzean behar izan daitezkeen gainerako eskulan orduen kostua, eskulanaren lehenengo hiru orduena izan ezik, hori Konpainiaren kontura izango baita.
 - Instalazioa, lotutako edozein lanetan, baldin eta elementu edo materialen finkapena gainazalean guztiz egonkorra ez bada.

✓ Erantzukizun Zibileko Estaldura

- Estalduran ez da sartzen hauen ondorioz sor daitezkeen kalte-ordainen ordainketa:
 - Engainuzko egitateak edo asegurdunak, haren soldatapekoek edo ardurapekoek nahita eragindakoak, baita aipatu aurreko edozeinek apustu, erronka eta liskarretan parte hartzearen ondorioz gertatutako kalteak ere.
 - Etxebizitzak edo eraikinak eta hauen instalazioak (bereziki hur-hurreko hondamen deklarazioa dutenak) mantentzeari buruzko arau, lege, ordenantza eta araudiak nahita ez betetzeak eragiten dituen kalteak.
 - Beste edozein kausagatik hodian edo eroanbideen korrosioa edo narriadura orokortua jatorri duten kalteak, zeinetan, aurretiko ezbehar batengatik haien berri izatean, haiek kentzeko beharrezkoak diren konponketak egin ez direnean.
 - Etxeko abere ez diren animaliek eragindako kalteak.
 - Zigorren eta isunen ordainketa, eta haiek ez ordaintzearen ondorioak.
 - Erabili edo gozatzeko, manipulatzeko, eraldatzeko, konpontzeko, zaintzeko, gordetzeko edo garraiatzeko asegurdunari utzi, laga edo errentan utzi zaizkion edo haren kontrolpean dauden ondasun higigarri edo higiezinei eragindako kalteak, Baldintza Orokor hauetan berariaz ezarritako kasuetan izan ezik.
 - Hitzarmenen ondorioz sortutako betebeharrak, hitzarmen horiek egon ezean asegurdunari legalki exijitu ezin ahalko litzaizkiokeenak.



- Laneko jurisdikzioak edo administrazioak aitortu behar dituen erantzukizunak.
 - Elkarreetan edo erkidegoetan gauzatzen diren kargu edo jardueren industrien edo negozioen ustiapenaren ondoriozko erantzukizunak, eta ordaindutako profesio edo zerbitzuena ere, ohorezko tituluarekin burutzen direnean.
 - Ibilgailu motordunek, itsasontziek, aireontziek (dron eta aeromodeloak barne) eta, oro har, arraun, pedal edo pertsonaren indarrak mugitutako bestelako mekanismoez soilik eragiten ez den edozein ibilgailu edo objektu eragindako kalteengatiko ardurak.
 - Airez edo uretatik nabigatzeko diseinatutako edozein artefaktuk, itsasontzik, aireontzik (dron eta aeromodeloak barne) eta, oro har, arraun, pedal edo pertsonaren indarrak mugitutako mekanismoez soilik eragiten ez den edozein ibilgailu edo objektuarekin eragindako kalteengatiko erreklamazioak.
 - Erreakzio edo erradiazio nuklearrak edo kutsadura erradioaktiboak sortutako edozein kalte, gai horri buruzko legediak bildu zein ez.
 - Polizak babesten duen gorputzeko kalte edo kalte materialen baten ondorio ez diren galera ekonomikoak, baita polizak babesten ez duen gorputzeko kalte edo kalte materialen baten ondorio diren galera ekonomikoak ere.
 - Zuzenean edo zeharka airearen egoera naturalaren, lurreko, itsasoko edo lurrazpiko uraren, zoruko nahiz lurpekoa eta, oro har, Ingurumenaren nahasmenek eragindako kalteengatik erantzukizunak, hauek sorturikoak:
 - Kutsatzaileen isurtzeak, injekzioak, biltegiak, ihesak, deskargak, jarioak edo iragazketak.
 - Erradiazioak, zaratak, bibrazioak, usainak, beroa, tenperatura-aldaketak, eremu elektromagnetikoak edo beste edozein uhin-mota.
 - Ke toxikoak edo kutsagarriak, suteak edo eztandak sortuak.
- ✓ **Defentsa Juridikoaren Estaldura**
- Zehapenak eta isunak ordaintzea, horien aurkako helegiteak eta agintaritzaren eskudunek jarritako zigorrak eragindako edozein gastu.
 - Kudeaketetatik, izapideetatik, espedienteetatik edo prozeduretatik eratorritako defentsa edo gastuen ordainketa, edozein izaera eta motakoak badira ere, eta baldintza hauek betetzen badituzte:
 - 305 eurotik beherako auzitegi-kostukoa izatea.
 - Banku-jardueratik eta ur-, gas-, elektrizitate- eta telefono-hornikuntzatik eratorriak izatea.
 - Garraio kontratuetatik eratorriak izatea, aurreko atalean bildutako mudantzak izan ezik.
 - Aseguratuaren langileen erreklamazioak, etxeko zerbitzuko langileenak izan ezik, eta hirugarrenenak, beren zereginak burutzeko ekintzen edo zabarkeriengatik.
 - Aseguratuaren jarduera profesionalak eragindako erreklamazioak, edo jarduera horri loturiko ondasunen gainekoak.
 - Gidariak edo ibilgailuaren jabeak egindako ekintza penal edo zibilak, motordun ibilgailuaren erabileraren edo zirkulazioaren jardueraren ondorioz.
 - Ondasun higiezin baten salerosketa kontratu batetan kausa duten erreklamazioak, eta eraikuntza akatsengatiko erreklamazioak.



- Asegurudunak Konpainiaren aurka, edozein izanik ere arrazoia, edo harekin, erabaki-unitate bakarra osatuz, zuzenean edo zeharka, lotura duen edozein enpresaren aurka eta, oro har, MAPFRE izena daraman enpresa baten aurka ezarri nahi dituen erreklamazioak.
- Sustatzaile, eraikitzaile, arkitekto eta bestelako edozein teknikariren aurkako ekintzak, ondasun higiezin baten eraikuntzan egin duten lana dela-eta, zuzenean edo zeharka.
- Babes juridikoaren bermea indarrean sartu baino aurretik jazotako gertaeretan jatorria edo zergatia dutenak.
- Alokairu kontratuetatik eratorritako erreklamazioak.
- Frogak ez dituzten eta, hortaz, bideragarriak ez diren erreklamazio bidegabeen gastuak, baita pairatutako kalte eta galeren balorazioa neurritz kanpoko delat agerian uzten duten erreklamazioen gastuak ere. Dena dela, Konpainiak gastu horiek ordainduko ditu asegurdunak bere asmoen aldeko ebazpen irmoa edo hasierako asmoaren antzeko zenbatekoko kalte-ordaina lortzen badu. Horretarako, Konpainiak bere gain hartzen du asegurdunari baldintza hori jakinarazteko betebeharra, baita presazkoak izateagatik beharrezkoak diren diligentsziak egiteko ere, babesgabetasunik ez eragiteko.

✓ Etxeko Animalien Estaldura

- Egoera hauek ez dira aseguraturuta egongo:
 - Gaixotasun infektzioso/kutsakorrek, epizootikoak, parasitokoak edo beste edozein gaixotasun, intsektuen, akaroen, marraskarien edo bestelako ugaztunen zizten edo hozken ondorioz kutsatutakoak barne.
 - Pozoidurak eta intoxikazioak.
 - Estalitako Arriskuak atalean azaldu ez diren kalteak.
 - Animaliaaren adina dela-eta edo egoera horretatik eratorritako lesioak edo gaixotasunak.
 - Ebakuntza kirurgiko estetikoak, adibidez, zenbait arrazei belarriak edo buztana modelatzeko edo atzazalak erauzteko.
 - Ehizatik eratorritako edozein gertaera.
 - Erditze distozikoa edo zesarea, beren ezaugarri anatomikoengatik erditzeko, oro har, albatariaren laguntza behar duten arrazak, bereziki arraza brakizefaloak, adibidez bulldog frantsesa, bulldog ingelesa eta boston terrier arrazak.

✓ Bidaiaiko Asistentzia Estaldura

- Ez da estalita egongo honakoetatik eratorritako asistentzia:
 - Aseguratuak nahita egindako lesioak edo intoxikazioak.
 - Alkohola, drogak, sorgarriak edo sendagaiak nahita hartu izanagatik eragindako egoera patologikoak, mediku batek errezeta eman ez duenean.
 - Lehiaketa ofizialetan kirolak praktikatzea.

Arestian zehazten diren estaldurak, salbuespenak eta mugak Baldintza Orokorretan garatzen eta azaltzen dira, eta hor kontsulta daitezke.

Ezbeharra gertatzen bada, eragindako berme zehatzerako (estaldura eta salbuespen zehatzak) ezarritako dagoena hartuko da kontuan kalte-ordaina zehazteko, eta izaera orokorreko bazterketak ere aplikatuko dira.



6.3. FRANKIZIA

Aseguratua bere arriskuen aseguratzailea bera den zenbatekoa; haren arabera, ezbeharraren izanez gero, bere ondarearekin jasango du kalteen dagokion zatia. Ezbeharraren zenbatekoa frankizia gisa ezarritakoa baino txikiagoa bada, aseguratuaren kontura izango da osorik kostua; handiagoa bada, gainerakoa baino ez du ordainduko Konpainiak.

6.4. EZOHIKO ARRISKUAK

Erakundeak estalitako bermeen osagarri gisa, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak ordainduko ditu pertsonengan eta ondasunetan izandako zuzeneko kalteak, bai eta horien ondorioz irabazietan izandako galera ere, baldin eta polizan aseguraturuta badaude, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Erregelamenduan (300/2004 E.D.) izenez zerrendatzen diren ezohiko gertaeren ondorio direnean (lurrikarak, uholdeak, terrorismoa, ziklono-ekaitz atipikoa, etab.). Gertaera horiek polizan azaltzen den "ASEGURUEN KONPENTSAZIO PARTZUERGOAREN kalte-ordainen klausula ezohiko gertaeretatik eratorritako ondorioengatik. Ohiz kanpoko arriskuen aseguru (Aseguruen Konpentsazio Partzuergoa)", klausulan jasotzen dira.

7- EZBEHARRA

7.1. EZBEHARRA DEKLARATZEKO PROZEDURA

Ezbeharraren berri ahalik lasterren eman behar zaio aseguratzaileari, gehienez ere bezeroak hori jakin izan ondorengo zazpi egunen barruan.

Jakinarazpena 918 365 365 / 900 822 822 telefono-zenbakietan egin ahal izango da, baina idatziz berretsiko beharko da aseguratzaileak beharrezko ikusten badu ezbeharraren behar bezala izapidetzeko.

ASISTENTZIA estalduran ezbeharraren denean, asegurudunak telefonoz edo berehalako komunikaziorako beste edozein bitartekoren bidez eskatu ahaliko du behar duen asistentzia, bere identifikazio-datuak eta polizaren zenbakia emanez.

Aseguratuak aseguratzailearekin kolaboratuko du beti:

- ✓ Idatziz jakinaraziz, hasierako jakinarazpena egiten denetik gehienez ere bost eguneko epean, ezbeharraren gertatu zen unean zeuden objektuen zerrenda, salbatu direnen zerrenda eta kalteen edo galeren zenbatespena.
- ✓ Ezbeharraren inguruabarrei eta ondorioei buruzko era guztietako informazioa emanez, eta aseguratzaileak izendatutako perituen esku-hartzea lagunduz.
- ✓ Jasotako edota ezbeharrarekin zerikusia duten jakinarazpen judizial, estrajudizial edo administratiboak ahalik epe laburrenean jakinaraziz.

Betekizun zehatzak:

- ✓ Lapurreta, ebasketa, bidegabeko jabetzea eta txartelen iruzurrezko erabilera gertatzen direnean, salaketa aurkeztu beharko da. Salaketa horretan, ondasunak asegurutzen dituzten Konpainia eta polizaren zenbakia aipatu beharko dira.
- ✓ Txartelak edo ordaintzeko antzeko gailu fisikoak (zordunketakoak edo kreditukoak) eta erosketak-txartelak produktu, zerbitzu edo hornitzaile jakin batzuentzat bakarrik desagertuz gero, egoera hori ahalik eta azkarren jakinarazi behar zaio erakunde jaulkitzaileari, betiere, ezbeharraren Konpainiari jakinarazi baino lehen.



7.2. ASEGURUEN KONKURRENTZIA

Aseguratuak ezbeharrak eragindako berme bera estaltzen duten bi kontratu edo gehiago baditu, ondasun berari dagokionez, hainbat aseguru-erakunderekin sinatutakoak, aseguruak MAPFREri jakinarazi beharko dizkio gainerako polizak, gainerako aseguru-erakundeen izena adieraziz; beraz, MAPFREri dagokio sortutako kaltea aseguratutako zenbatekoaren beraren proportzioan soilik ordaintzea, gainerakoei dagokienez.

7.3. EZBEHARRA ASEGURATUARI LIKIDATZEA

Aseguratzailerak kalte-ordaina ordaindu beharko du ezbeharraren existentzia eta, hala badagokio, ezbeharraren ondoriozko kalteen zenbatekoa zehazteko behar diren ikerketak eta peritazioak amaitzean, ahalik eta epe laburrenean. Edonola ere, ezbeharraren aitorpena jaso eta ondorengo berrogei egunetan, aseguratzaileak ezagutzen duen egoeraren arabera zor dezakeenaren gutxieneko zenbatekoa ordaindu beharko du.

Aseguruaren izaerak ahalbidetzen duenean eta aseguruaren onartzen duenean, aseguratzaileak kalte-ordaina ordaindu ordez ezbeharra izan duen objektua konpondu edo birjarri ahal izango du, konponketa berariaz hitzartzen den berme edo estalduren kalterik gabe, kalte-ordainik ez badago.

Ezbeharra gertatu eta ondorengo hiru hilabeteetan aseguratzaileak ez badu kaltea konpontzen edo kalte-ordainaren zenbatekoa eskudirutan ordaintzen, eta arrazoi justifikaturik edo egoz dakioken arrazoirik ez badu, kalte-ordainari legeak ezartzen duen berandutza-interesa gehituko zaio.

Erakundeak aseguruari jakinaraziko dio kalte-ordainaren zenbatekoa, elkar hitzartutako bitartekoa erabilita. Kalte-ordaina murriztu egin bada, aseguruari argi azaldu beharko zaizkio erabaki horren arrazoiak.

Alderdiak edozein unetan ados jarriko balira kalte-ordainaren zenbatekoari eta hori ordaintzeko moduari buruz, aseguratzaileak adostutako zenbatekoa ordaindu edo aseguratutako edo kaltetutako objektua ordeztzeko beharrezko lanak egin beharko ditu, objektuak hala ahalbidetuz gero.

Adostasunik ez egotekotan, aseguruak peritu bat izendatu beharko du, Aseguru Kontratuaren Legearen 38. artikuluan ezartzen denari jarraituz, 9. puntuan aipatzen diren erreklamazio-instantzietara jotzeko duen eskubidearen kalterik gabe.

7.4. ASEGURATUARI EZBEHARRA EZ ONARTZEA

Erakundeak ez badu ezbeharra onartzen, aseguruari jakinaraziko dio, bien artean hitzartutako bitartekoaren bidez, bere erabakiaren arrazoiak eta lege-oinarriak, ezbeharra deklaritzen denetik kontatzen hasi eta hiru hilabetez gehieneko epean.

Erakundeak emandako erantzunean, kontuan hartuko da beharrezko erreferentziak jasotzea aseguruak egiaztatu ahal dezan erakundeak erabakitako ebazpena bi alderdien artean sinatutako kontratuan jasota dagoenarekin bat datorrela. 9. puntuan aipatutako instantzien aurrean erreklamazio bat aurkezteko aukeraz gain, aseguruak peritu bat izendatu ahalko du Aseguru Kontratuaren Legearen 38. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

8- PRIMEN BALDINTZAK, EPEAK ETA MUGAEGUNAK

8.1. ASEGURUAREN ETA PRIMAREN INDARRALDIA

Berariaz bestelako **iraupen** bat adostu ezean, polizek urtebeteko indarraldia izango dute kontratatzen diren unetik, eta iraupen bereko epeetarako berritu ahalko dira, alderdiak horren kontra ez badira.

Prima urtekoa izango da, eta bankuan helbideratuz edo kreditu-txartel bidez ordaindu ahalko da.

Aseguruaren hartzailea **prima** ordaintzera behartuta dago, kontratuaren Baldintza Orokorretan eta Partikularretan zehazten denaren arabera.



8.2. PRIMAN SARTZEN DIREN KONTZEPTUAK

Aseguruaren priman sartuta egongo dira egotzi daitezkeen zerga eta errekareru guztiak, Aseguruaren Kontentsazio Partzuergoaren aldeko errekareru barne.

8.3. PRIMA ZATIKATZEA

Urteroko primaren ordainketa zatikatu ahalko da kontratuaren Baldintza Partikularretan ezartzen diren epeekin eta xedapenekin bat.

9- ERREKLAMAZIO INSTANTZIAK

9.1. KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK JARTZEKO PROZEDURA

Finantza-zerbitzuetako erabiltzaileen babeserako ezarritako araudiarekin bat etorritik, aseguru kontratu honen interpretazio edo egikaritzean eztabaidaren bat sortuko balitz, Aseguru Hartzaileak, aseguruak, onuradunek eta kaltetutako hirugarrenek edo horien eskubidedunek erreklamazioa edo kexa aurkeztu ahal izango dute. Horretarako idazkia igorri beharko dute MAPFRE Konpainiaren Erreklamazioetarako Zuzendaritzara gutunez (281 Posta-kutxa, 28220 Majadahonda, Madril) edo baliabide elektronikoz www.mapfre.es webgunean, MAPFRE Taldeko Sozietateen eta hartako Finantza-zerbitzuetako Erabiltzaileen artean sortzen diren gatazkak ebazteko araudiaren ("[mapfre.es](http://www.mapfre.es)" Webgunean kontsulta daiteke) eta hura laburbiltzeko esku-hartze arauen (kontratu honekin batera Hartzaileari helarazten zaizkionak) arabera. Jakinarazten dizugu, bestalde, erreklamazioaren ebazpenarekin ados ez bazaude, eta gure arauetara jarraituz Asegurudunaren Defendatzaileak esku hartu dezakeen kasuetan, Defendatzaileari hura helaraztea eskatu ahal izango diozula. Halaber, erreklamazioak eta kexak aurkeztu ahal izango dituzte Asegurutzalearen bezeroek eta haien eskubidedunek, aseguru agenteen eta banku-aseguruko operadoreen jarduketaren inguruan, aurrez aipaturiko Araudiaren eta prozeduraren arabera.

Erreklamazioa paperean edo baliabide informatiko, elektronikoa edo telematikoen bidez egin ahal izango da, lege aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorritik eta 900 205 009 telefono-zenbakian.

Erreklamazio edo kexa hori onartzen ez bada, edo aurkeztu eta bi hilabeteko epea igarotzen denean, erabiltzaileak erreklamazioa edo kexa aurkeztu ahal izango du Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Erreklamazio Zerbitzuaren aurrean (Paseo de la Castellana, 44, 28046 Madril; helbide elektronikoa: www.dgsfp.mineco.es), eta, eskatuz gero, kasuan kasuko galdetegia jarriko dugu haren eskura.

Alderdien berariazko adostasunarekin bakarrik jarri ahal izango dira bitartekarien edo arbitroen iritzian kontratu hau interpretatu eta betetzerakoan dauden desberdintasunak, indarreko legeriaren arabera.

9.2. JURISDIKZIO APLIKAGARRIA

Kontratu hau jurisdikzio espainiarren menpe geldituko da eta, haren barruan, kontratuaren ondoriozko egintzen ezagutzarako eskumeneko epailea aseguruaren helbideari dagokiona izango da. Horretarako, aseguruak Espainiako helbide bat emango du, berea atzerrian egonez gero.

10- LEGERIA APLIKAGARRIA

Polizaren baldintzak lege hauen mende daude:

- 50/1980 Legea, urriaren 8koa, Aseguru Kontratuarena.
- 20/2015 Legea, uztailaren 14koa, aseguru erakundeen eta berrasegurutzaleen antolaketa, ikuskatze eta kaudimenari buruzkoa eta horren garapenerako arauak.
- 7/2004 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 29koa, Aseguruaren Kontentsazio Partzuergoaren Legezko Estatutuaren testu batekina onartzen duena.